Imanol Ituiñok

aurkezten du...

Magia ikuskizun bikaina bertatik bertara gaztetxoentzat.
Ez da ez pasaporterik ez txartelik behar.
Igandekariak ez dira ongi etorriak.

Koaderno hau aurkitzen baduzu, jarri zaitez ahalik eta azkarren kontaktuan:

618499758

imanolitu@gmail.com

www.imanolituino.com

Jolastu baino ez zuela nahi esaten zuten... Ziur.

Mago bat bere etxeko atarira heltzen da munduari bira osoa eman ondoren. Giltza ateratzera doanean... Hara! Norbaitek lapurtu dio! Lagunduko al diozue nor izan den asmatzen? Bere mundu bira bitxi horretan ikasitako trikimailu guztiak egingo ditu, eta arrastoak eta asmakizunak magikoki agertzen joango dira. Horrela, beharbada argituko da giltza non dagoen. Noski, publikoaren parte hartzea, azkartasuna eta magia ezinbestekoak izango dira bidaia honetan.

45 minutu.

5 urtetik aurrera.

30 ikusle (gelaren arabera).

Euskeraz, gazteleraz edo ele bietan

Oraindik ezin dut ulertu zergatik zegoen horren estalita Juanito...

Afrikako sabanako iluntzeaz gozatzen.

Zergatik ikuskizun hau?

Aspaldi sentitzen nuen haurrentzako magia ikuskizun bat egin behar zela, baina benetan haurrentzat pentsatu eta antolatua. Kontua ez da bakarrik entretenitzea, beste zeozer ere eskaintzea baizik. Hainbat antzoki, ikastola eta kulturetxetan antzeztu ondoren, garbi daukat umeek geure errespetua eta atentzioa eskatzen dutela etengabe. Jeneralean, frontoietan edo gela tzarretan eskaintzen zaizkie umeei horrelako ikuskizunak; nik, ordea, guztiz bestelako proposamena dakart: saio txikiak eskaini, areto txikitan eta aldiro jende gutxirentzakoak. Hartara, gaztetxoak ikusle huts izan beharrean parte-hartzaile aktibo izatea lortzen da, eta harremana aurrez-aurrekoa bihurtzen da, askoz aberatsagoa. Umeak adi egongo dira, espektakulu handi horietan ematen den zarata, istilu eta anabasarik gabe.

Ikuskizun honek asmakizunak, jarraitu beharreko arrastoak eta parte-hartzea sustatzen duten trikimailuak ditu. Aldian aldiko herrialdea zein den asmatu beharko dute, eta bertan ikasitako trikimailua egingo die magoak. Gainera amaieran pistak jarraituta, eurek asmatu beharko dute nork zeukan magoak hasieratik galduta duen giltza.

Saio hauetan, magia egiteaz aparte, gaztetxoen hezkuntzan landu beharreko gaiak azalduko dira ere, hala nola **beste herrialdeekiko aurreiritziak, mugak, geografia** eta elkarrenganako **errespetua**. Beti ere, noski, **magia eta umorea** ahaztu barik.

Imanol Ituiño, bidaiari neka ezinaz aparte, hau guztia da:

- Ikusentzunezko komunikazioan lizentziatua EHUn eta mago profesionala.
- Lehen Saria Almussafes Magia Topaketan 2008an, gertuko magia arloan.
- 2º Areto Magia Sari Nazionala 2014. urtean.
- Interpretazio Graduondoa EHUn.
- Aisialdiko begirale titulua.

Oraingo honetan magiak ez zuen balio izan trena geratzeko...

Piramideen handitasun eta perfekzio jainkotiarra goratuz, hau xuxurlatu nuen: “Hau beroa, alatutankamon!”

Tranpak eginda ere ezin izan nion honako Masai tantai honi irabazi...

MUNDUARI BIRA (IA) 80 TRUKUTAN

Imanol Ituiñoren ikuskizuna

618499758

imanolitu@gmail.com

www.imanolituino.com